

*Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Kontseilariaren oharra*

*Ikusirik hedabideetan argitaratutako berria, zeinean, Navarra Televisióneko “Me importas tú” saioan irailaren 2an egindako elkarrizketa baten ondotik, honako hau baieztatzen baitzen: “Isabel Elizalde dio berrikusi beharko litzatekeela Sakanako atez ateko sistema”,*

*LGIetaTako Departamentuak xehetasun batzuk argitu nahi ditu:*

*Erabateko errespetua toki entitateen autonomiari.*

*Elkarrizketan egiaztatu daitekeen bezala, kontseilariak dio hondakinen kudeaketa eta tratamendua udalen eta mankomunitateen eskumenekoak direla. Halaber, gehitzen du ezen, hondakinen kudeaketa eta tratamendurako ereduak berrikusi behar badira, azterlan hori egin beharko dela Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuaren esparruan (HKPI), eta plan hori gauzatuko dela partaidetza prozesu egokien bidez, mahai gainean aztergai izanik hainbat eredu eta proposamen, eta beti errespetatuz Mankomunitateen eskumena. Elkarrizketa horretan, kontseilariak azpimarratzen du beharrezkoa dela horrelako partaidetza prozesuak abian jartzea, lan-metodologia gisara, lurraldeari egokitutako erabakiak hartu ahal izateko.*

*Helburua: errefusa ahalik eta gehien gutxitzea*

*Gobernurako programa-akordioan ageri da zeren alde egin gogo den: “Hondakinak gaika biltzeko eta tratatzeko sistema aurreratuen alde egitea, tokian tokiko egoerara egokituta, eta herritarren parte-hartzeaz errefusa ahal bezainbat murrizten ahalegintzea (ohitura osasungarriak sustatzea gizartean, kontzientziazioa lantzea, etab.)”.*

*Beraz, zeinahi direla praktikan jarriko diren birziklatze ereduak, zeinetarako beti errespetatuko baita toki entitate bakoitzaren autonomia, gure helburua da errefusa ahalik eta gehien gutxitzea eta birziklatzeari buruzko Europako Zuzentaraua betetzea.*